



## ❖ BERTSOLATA Bertso jaialdia izango da etzi Oialumen

Hernaniko Bertso Eskolak antolatuta, jaialdia izango da etzi Oialumen. Kantuan ariko dira Txapelketa Nagusiko aurreneko lauak, eta beste bi bertsolari: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Andoni Egaña, Iñaki Zelaia eta Agin Rezola. Jaialdia 22:30etan hasiko da, eta sarrerak bertan salduko dira, aldeztu aurretik. Horrez gain, astelehenean, *Hernani Bertsoan* proiektuaren aurkezpena egingo dute, Biterin, 19:00etan hasita. ||

## ❖ MANIFESTAZIOA Bilbora joateko txartelak salgai

*Dagozkien eskubideen jabe, euskal presoak Euskal Herrira* lemarekin, manifestazioa egingo da etzi, larunbata, Bilbon. Arratsaldeko 17:30etan aterako da Aita Donostia Plazatik, eta bertara joateko autobusa antolatu dute Hernanitik. Autobusa Atsegindegitik aterako da, 15:30etan, eta aldeztu aurretik txartelak erosi behar dira, Garinen. ||

## ❖ A A M

### Kontzentrazioa bihar Zinkoenean

Urteko aurreneko kontzentrazioa egingo du bihar Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Hernanin. Zinkoenean izango da, 20:00etan hasita. ||

## ❖ MUSIKA

### Dj rockKaiet izango da gaur Bodegan

Urte Berriari ongi etorria emateko Dj rockKaiet izango da musika jartzen Bodegan. Gaueko 01:00etatik aurrera gerturazten diren rock musikaz gozatzeko aukera izango dute. ||

## Urte Zaharreko erronda egingo dute gaur, urteari amaiera emateko

Herriko Kaxkoan zehar egingo dute, Ohitura Zaharrak abesbatzak eta Iraulio Panttalone Bertso Eskolak, urtea jai giroz agurtzeko asmoarekin. Nahi duen guztiak har dezake parte.

URTE Zahar eguna izaki, urteroko moduan, herriko Kaxkoan kantuan ibiliko dira Ohitura Zaharrak abesbatza eta Iraulio Panttalone Bertso Eskolako kideak. Hitzordua 17:15etan egin dute, Plazan, elkartu, eta 17:30etan abiatzeko. Aurten ere erronda antolatu dute, urte zaharrari agur esan eta berriari ongi etorria emateko asmotan.

**Zaharren Egoitzara bisita**  
Plazatik abiatu, eta aurreneko geldialdiak Zaharren Egoitzan egingo dute, bertako aiton-amonei abesteko.

Ondoren, Kaxkora itzuli-ko dira, eta geldialdiak egingo dituzte, kantuan. Geldialdi bakoitzean, kantuez gain, bertso saio txikia egingo dute, momentuko jendeari eta giroari erreferentzia eginez.

rentzia eginez.

Kaxkoan zehar egingo duten ibilbidea izango da ondorengoa: Plazara, Kardaberaz kalera jaitsiko dira eta Nagusia igoko dute. Lekurik nagusienetan geratuko dira.

Erronda Ohitura Zaharrak eta Bertso Eskolak antolatzen badute ere, nahi duen guztiak har dezake parte, baserritarrez jantzita. ||



Hitzordua 17:15etan, Plazan.

## AAMk adierazi du gazteriak bizi duen egoera eta jazarpena salatzea ezinbestekoa dela, eta gazte hauek babestu egin behar direla

AMNISTIAREN Aldeko Mugimenduak balorazioa egin du orain dela hilabete espainiar poliziak eta Guardia Zibilak egindako polizia operazioaren inguruan. Balorazioa prentsaurrean egin zuen atzo, Biteri kultur etxean, eta baita ere, egin zuen inkomunikazioaren eta torturaren inguruko irakurketa.

AAMk salatu zuen oso ondorio larriak utzi dituela orain dela hilabete espainiar poliziak eta Guardia Zibilak gazte independentisten kontra egindako operazioak: «gazteek salatu zuten torturatuak izan zirela inkomunikazioak iraun zuten bitartean, eta besteak beste, poltsak jarri zizkieten buruan arnasik gabe uzteko, jo egin zituzten, biluztu eta ariketa fisikoak eginarazi».

«Hainbat izen atera dira»  
AAMk jakinarazi duenez,



Dozenaka gazte, senide eta abokatu bildu ziren atzo AAMk Biterin eman zuen prentsaurrekoan.

azken polizia operazio honetan hainbat izen atera dira: «mahaiaren bueltan eserita dauden gazteen izenak atera dira espainiar poliziak eta Guardia Zibilak inkomunikazioa eta tortura erabiliz egindako galdeketa. Gazte hauen izenak zerrendan daude, eta baita horrek dakarren arriskua ere. Gazte hauek egindako lana erabat publikoa da, beraien eskubideen alde, Euskal Herriaren inde-

pendentzia bilatuz, eta gaur hemen daude, komunikabide aurrean, aurpegia ematen. Gazteri independentista errepresio estrategiaren jomugetak bat da, eta herri honetan aldaketa politika eman dadin, beharrezkoa dute Estatuak gazte belaunaldi berriak kolpatzea».

«Jarrera argiak eta konpromiso zehatzak hartu behar dira»  
Prentsaurrean gogoratu zuten

milaka lagun izan direla azkenaldian jazarpen honen aurrean kalera atera direnak, eta hori dela bidea: «beharrezkoa ikusten dugu herriz herri, eremu errepresioaren aurrean antolatu eta erantzun bateratuak ematea. Jarrera argiak eta konpromiso zehatzak hartzeko deia egiten diegu herri honetako eragile, politiko, sindikal eta sozialei, gazteak babestuz, kalean mobilizatuz eta jazarpenari aurre eginez». ||

**TRIPA BETE NAHI?**

*sabemos castellano*

taberna tripointzi

PINTKOAK, RAZIOAK,  
ENTSALADAK,  
PLATER, KONBINATURAK  
ZATOZ DASTATZERAK!

Urte berri on!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI • 943 555 724

**RIOJA TABERNA**

Mila esker bihotzetik gure ondoan izan zareten denoi. Urte berri on guztioi!

kale nagusia, 6

**TELEFONOAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 333288 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
✚ **FARMAZIAK** ● **GAUR**: Egunez: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauetz**: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941  
✚ **FARMAZIAK** ● **BIHAR**: Egunez: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauetz**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Goizean zerua lainotuta egongo den arren, tarteka garbitu egingo da eta ater egingo da. Arratsaldean, lainoak areagotu eta euria egingo du. Temperatura jaitsi egingo da nabarmen.  
**BIHAR** Haize-bolada oso gogorak espero dira. Zerua oso lainotuta egongo da eta euria egingo du. Temperatura freskoa izango da. (euskaime)

## 👁️ Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Eta hori pentsatzen jarraitzen dugu

Ez gaituzu konbentzitzen Plazaola jauna. Atez atekoaren ostean ez da herri galdeketarik egingo, eta askorentzat gaia garrantzitsua da herritarrek zer pentsatzen duten jakiteko, beldurrik gabe.

Auzokideek zer pentsatzen duten edo zein behar dituzten jakiteko, beraiekin egindako bilerekin dagokienez, idatzi hau sinatzen duena urtero biltzen zen Auzo Elkarteekin. Ez zen beharrezkoa bereziki gai garrantzitsua izatea, gauza normala zen. Ez bizilagunekin harremana izatea ezta Amerikak deskubritzea ere, ez dira talde honen obrak izan, beste batzuk lehenago ere ibiliak gara itsaso berean.

Gauzak nahasten ari gara, nahasten ari garen moduan hondakinak tratatzea (konposta, berziklatzea, berrera-biltzea, errausketa, etabar)

eta hondakin biltzeta (gantxo bidezko atez atekoa, komunitateka banatutako kubo bidezko atez atekoa, bosgarren kontenedorea, etabar). Guk ahalmena dugu hondakin biltzeta buruz galdetzeko (zinegotziak gara) eta Diputazioak edo Batzar Nagusiak dira (diputatuak edo batzarkideak) errausketaren inguruan galdetu behar dutenak.

Horrez gain, gustatuko litzaidake aurrean izatea azken azterketaren bat non esaten den aipaturiko kantzer, bizkarrezur erdibituak etabar bezalako gaixotasunak ugaritu egin direla Vienan edo Bartzelonan, kontuan izanda, errausgailuak hiriaren erdigunean daudela. Edota azken bost urteetan errausgailuren bat jarri den munduko edozein hiritan. Ez dut dokumentu hori eta San Markos Mankomunitateko juntakide izan nintzen lau urteetan ere

ez nuen ikusi, beraz, ez dut ezer sinesten. Plazaola jauna, Gobernu Talde hau hainbeste kezkatzen bada osasunaz, zergatik ez du udal ordenantzarik egin herrian erretzea debekatzen duena?

Azkenik, Plazaola jauna, eta jakin gabe zein lotura duten alderdien ilegalizazioek, Alkatearen egoerak, hondakin biltzetak eta bere tratamenduak; esan behar dut, eta espero dut argi gertatzea, ez dudala sinesten partiduen ilegalizazioan, ez noa PSE eta PPren bidetik helburu horrekin, errespetatzen ditut demokrazian ezarritako arauak eta sinesten dut bakarrik hitzan, medio bezala pertsona guztiak erlazionatzeko, bazterkeriarik gabe.

Zorionak eta urte berri on denoi, Plazaola jaunari ere bai.

**Andoni Amonarraz**  
**EAJ-PNVko bozeramailea**  
(\*Erredakzioan euskeratua)

## ◆ FUTBOLA

### Labaien torneoa jokatu da gaur arratsaldean Zubipen

Gabonetako ohiturei hutsik egin gabe, aurrean ere Labaien torneoa jokatu da Zubipen. Torneoa triangularra izango da, eta hiru taldek jokatu dute: Hernanik, Realak eta Añorgak. Talde

bakoitzak bi partidu jokatu ditu, ondorengo ordenean: lehenengoa Añorga eta Hernaniren artekoa izango da, 16:00etan hasita; bigarrenengoa Realak eta Añorgak jokatu dute, 17:00etan hasita; eta hirugarrenengoa berriz, Hernani eta Realak jokatu dute, 18:00etan hasita. Torneoa Juantxo Labaien zenaren omenez jokatu da, eta aurtengoa 37garren edizioa da. ||

**biokbi optika**

Antziola, 14  
Tel.: 943 33 68 86

**Urte berri zoriontsua opa dizuegu!!!**

Orain, betaurreko graduatuak edo eguzkitako betaurrekoak erosita, opari bat egingo dizugu.

## ◆ MENDIRIZ MENDI

### Done Jakue bideko 7garren etapa egingo dute urtarrilaren 10ean

Mendiriz Mendi elkarteak Done Jakue bideko 7garren etapa egiteko irteera antolatu du, helduentzat. Etapa Agurain eta Gasteiz ingurukoa izango da, eta urtarrilaren 10ean egingo dute.

Autobusa Atsegindegitik aterako da, goizeko 08:00etan. Joan nahi dutenek, izena eman behar dute alde aurretik, astelehen, ostegun eta ostiralean, elkartearen, 20:00etatik 21:00etara. ||

### Atez ateko zalantzak argitzen

Zer egin behar dut arrainak usainik ez botatzeko?

Sukaldeko paper xurgatzailearekin bilduta sartu kuboan.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net)  
Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



## ◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

- Okindegi batean dendarri lanerako emakume jator bat behar degu, larunbat eta igandetan ere lan egiteko prest. Interesatuak deitu mesede 653 70 35 31.**
- Erreferentzi onak ditudan neska naiz, eta adineko pertsonak zainduko nituzke, gauetz, eta goizez garbiketa lanak egingo nituzke, 2 orduz. Deitu: 626 802 083**
- Pixu bat alokatzen da.** 3 gelakoa eta komedorearekin. Igogailua eta kalefakzioarekin. Deitu 943 55 71 84 (ilunabarreko 19:00etatik 20:00etara)
- Portatila salgai,** egoera onean egoteagatik itzuli ezin dena. Toshiba Tecra A9, Intel Core 2 Duo Mobile T7250, 2.0 Ghz, DVD grabagailua, Windows Vista. **Prezioa: 430€.** Deitu: 678 595 638
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, gabonetako eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**
- Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta berterbrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berterbrala, reflexologia, auriculoterapia... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**ARISTREGI Sukaldeak**

Sukaldeko eta komuneko altzariak  
Armairu enpotratuak  
Elektrogailuak  
Mahai eta aulkiak

**Urte berri on guztio!**

Erakusketa: Perkaiztegi 10w - Tel.: 943 550 688 - e-maila: [suk@aristregi.e.telefonica.net](mailto:suk@aristregi.e.telefonica.net)